

BEZEROAREKIKO HARREMANA

BABESBIZI-n argi dugu bezero eta gure arteko harremana zuzena eta gardena izan behar dela, konfiantza eta arreta pertsonalizatua bermatzeko. Izan ere, gure hartzaille eta babesletzako laguntza jasotzen duten pertsonekin dugun harremana gure helburu garrantzitsuenetarikoa da: animalien ongizatea eta zaintza bermatzea.

Horregatik, gure kanal gehienak zuzenekoak izatea nahi dugu, hartzailleekin harreman estua izateko, haien egoera hobeto ezagutzeko eta behar duten laguntza modu eraginkorren eskaintzeko.

Gure elkartean, harreman pertsonala izango da gure zerbitzuen ardatza. BabesBizi-ren egoitza bertan, Bilbon kokatuta dagoen lokalean, aurrez aurreko kontsultak, aholkuak eta adopzio-prozesuak egingo ditugu.

Nahiz eta telekomunikazio bidezko laguntza ere posible den, uste dugu aurrez aurreko kontaktuak efektiboagoak direla, bai adopzio-prozesuan, bai animalien zaintzan edo boluntarioekin lan egiten dugunean. Horregatik, gure zerbitzu guztiek modu presentzialean izatea aukeratu dugu, hartzailleekin harreman estua izateko eta bakoitzaren egoera hobeto ezagutzeko.

Gainera, gure zerbitzuetara sartzea erraztuko dugu: webgunearen bidez eska daiteke laguntza, boluntario izatea edo adopzio eskaera egitea, baita telefono bidez ere (+34 637234202). Horrela, edonork gurekin harreman zuzena izan dezake modu eroso eta azkar batean.

BabesBizi-n, harreman automatizatua ere izango dugu: webguneak aukera emango du galderak egiteko, informazioa jasotzeko eta animaliei laguntza eskaintzeko modu errazean.

Azkenik, gure zerbitzuak eskuragarriagoak eta erakargarriagoak egiteko:

- Bono sistema bat eskainiko dugu, adibidez hainbat sesio edo laguntza saio egiten dituzten hartzailleentzat deskontuak emanez.
- Informazioa zabaltzeko, hormairudiak, sare sozialak eta hitzaldiak erabiliko ditugu, gizartean kontzientzia sortuz eta animalien babeserako ekintzak ezagutaraziz.

Horrek guztiak bermatuko du BabesBizi-k hartzailleekin eta komunitatearekin duen harreman zuzena, gardena eta pertsonalizatua, animalien ongizatea lehenesten duena.